

Silvia Abril, Toni Acosta eta Itziar Ituñorekin abiatuko da Zinemaldia

IRATXE MARTÍNEZ

Kursaaleko argiak gaur gauean piztuko dituzte berriro, Donostiako Zinemaldiaren 73. edizioari hasiera emateko.

Inaugurazio gala gaur 20:30ean hasiko da, eta bederatziguneguz Donostia nazioarteko zinemaren epizentro bihurtuko duen lehiaketari hasiera emango dio. Urtero bezala, zeremoniak emozioa, ikuskizuna eta edizio hau markatuko duen izpirituari lehen begirada uztartuko ditu. Sail Ofiziala *27 noches / 27 Nights* filmaren munduko estreinaldiarekin irekiko da. Daniel Hendler da filmaren zuzendaria eta protagonista. Filmak Martha Hoffmanen istorioa kontatzen digu: Martha Hoffman mezenas xelebre eta diruduna da, eta alabek psikiatriko batean barneratuko dute. Casares perituak aztertu egin behar du amaren dirutza kontrolatzeko plana ote den ala, aitzitik, Marthak bere segurtasuna edo familiarena arriskuan jartzen duen dementziaren bat ote duen.

Esther Garcíari omenaldia egingo diote gaur gauean Kursaaletan, eta Donostia Saria jasoko du, Espainiako zinemarentzat giltzarri izan den ibilbidea aitortzeko. Ia ehun tituluren ekoizlea eta hainbat Goya sariren irabazlea, bere lana zinemagileen belaunaldien arteko zubia izan da, eta gaur egun imaginario kolektiboaren parte diren film askoren atzean sostengu ikusezina baina ezinbestekoa.

Eszenatokian, Silvia Abril, Toni Acosta eta Itziar Ituñok gidatuko dute gala, dinamismoa, konplizitatea eta publikoarekiko hurbiltasuna ziurtatuko digun hirukotea. Entseguan, eszenatokiak inposatu egiten zituela aitortu zuten zeremonietako hiru maisuek. "Ez al zineten Kursaaletan egon?", galdeztzen zuen Silvia Abrirek, bere kideen barreen artean. Gaurogalan umorerik egingo ez zutela esan zuten, "komedia ez baita nominatzen", txantxetan. "Zinemaldiari kortxoa kenduko dio-



Galaren aurkezleak aurreko entseguan

gul", zioen Abrirek pozez gainezka. Inaugurazio-ekitaldian, FIPRESCI Sari Nagusia ere emango da eta Epaimahai Ofiziala aurkeztuko da *27 noches* emanaldiaren aurretik.

Bigarren urtez jarraian, zeremoniaren zuzendaritza eta gidioa El Terrat (The Mediapro Studio) taldearen esku egon dira, eta Zinemaldiaren irekiera eta amaiera ekitaldian ere izango dira. Ohi bezala, ekitaldia zuzenean jarraitu ahal izango da TVEren La 2, RTVE Play, ETB1, eitb.eus eta Zinemaldiaren webgune ofizialaren bidez.

Zeremoniaz harago, etorriko denaren lehen erretratua ere bada inaugurazio gala: barrura begiratzen duen zinemaren aldeko apustua, galderak sortzen dituen, egunerokotasunean pitzadurak irekitzen dituen. Aurreko urteetan, inaugurazio-filmak edizio oso baten tonua markatu du, batzuetan nahi gabe. Ekitaldia, edizio honi aurpegiak jartzeko unea ere izango da, txalotzeko eserlekutik nor altxatzen den ikusteko, nor hunkitzen den besaulkian, nor igotzen den eszenatokira

begirada dardarati samarrarekin edo nor ibiltzen den alfonbra gorrian; aurten, estatuko eta nazioarteko zinema panoramako izen handiak erakarriko baititu Zinemaldiak. Gaur, oroimenerako gaua da, urte osoan pantaila handiarekin topo egiteko zain dagoen hiriarentzat, zinema arte gisa ez ezik, gertakari gisa ere bizi dutenentzat. Gaur, argiak itzali eta proiektzioa hasten denean, dagoeneko barruan gaudela jakingo dugu: Zinemaldiaren 73. edizioa hasi da!

San Sebastian, the epicentre of world cinema

The 73rd San Sebastian Festival's opening gala will be presented tonight at 20.30 at the Kursaal by three heavyweights, the actresses Silvia Abril, Toni Acosta and Itziar Ituño, in a show capturing emotion and the first glimpse at this edition. The ceremony precedes the world premiere of *27 Nights*, by Daniel Hendler, opening the Official Section. Telling the story of Martha Hoffman, an eccentric and wealthy octogenarian committed to a psychiatric clinic by her daughters, the film unfolds a psychological portrait of family ties as uncomfortable as it is human.

Tribute will also be paid to the producer Esther García, who will receive the Donostia Award for a career that has been key to Spanish cinema. The presenters playfully claimed they wouldn't be making any jokes, as 'comedy isn't nominated'. 'Let the Festival begin!' said Abril passionately. The gala will also present the FIPRESCI Grand Prize and the Official Jury. Again, the opening and closing ceremonies will be directed and scripted by El Terrat (The Mediapro Studio). As usual, they can be followed live on TVE's La 2, RTVE Play, ETB1, eitb.eus, and the Festival's official website.

KELONIK
antaviana
VFX & POSTPRODUCTION
SHARP / NEC

JUNTOS PARA LA MEJOR PROYECCIÓN DIGITAL